

2016-2017 ETA 2017-2018 IKASTURTEETAN URIBE KOSTAKO 10-14 URTE BITARTEKO GAZTETXOEN ARTEAN ESKUALDEKO EUSKARAZKO AHOZKO ETA IDATZIZKO ONDAREA EZAGUTZERA EMATEKO DAGOKION ZERBITZUA PROZEDURA NEGOZIATUAREN BIDEZ KONTRATATZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIAK

1. KONTRATUAREN HELBURUA

Kontratu honen xedea honakoa da: Uribe Kostako zein inguruko hizkuntza ondarea, ahozkoa zein idatzizkoa, Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateko Euskara Zerbitzua osatzen duten udalerrietako (Barrika, Gorliz, Lemoiz, Plentzia, Sopela eta Urduliz) 10-14 urte bitarteko gaztetxoek artean era ludiko eta entretenigarrian ezagutzera ematea. Udalerrietako ikastetxeetan landuko da programa 2016-2017 eta 2017-2018 ikasturteetan. Xede horrekin, lehiaketa bat antolatuko da eskualdeko gazteen artean. Hona hemen, zehatz-mehatz, zerbitzuaren nondik norakoak:

2. ZERBITZUAK: ALDIAK ETA DESKRIPZIO TEKNIKOA

Aldiak

Proiektuak, urte bakoitzean, fase hauek izango ditu:

- 2.1. Koordinazioa
- 2.2. Aurreko ediziorako sortutako materiala osatu eta material berria prestatu
- 2.3. Egitasmoaren aurkezpenak Uribe Kostako ikastetxeetan
- 2.4. Zabalkunde orokorra
- 2.5. Egitasmoaren euskarri izango den web orria sortu (beharrezkoa balitz)
- 2.6. Landuko den materialarekin atazak eta probak prestatu, eta web orrira igo
- 2.7. Harremana parte-hartzaileekin
- 2.8. Finalaurrekoa, eta berau antolatzea

2.9. Finala, eta berau ere antolatzea

Deskripzio teknikoa eta enpresa edo pertsona esleipendunak egin beharrekoak

1. Koordinazioa

Enpresa edo pertsona esleipendunak hasierako koordinazio-lanak egin beharko ditu Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitatearen ordezkariekin edo honek agindutako teknikariekin, eskualdeko ikastetxeetako zuzendariekin eta euskararen alorreko gizarte-eragileekin.

2. Materiala prestatu

Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateak enpresa esleipendunari emango dion materialarekin, ondorengoak diseinatu eta prestatuko ditu honek: gaztetxoek lantzeko atazak, alde batetik; eta lehiaketan praktikan jartzeko proba ludiko, entretenigarri eta ikasterrazak, bestetik.

Oinarrian erabiliko den materiala: *Zer ikusi, ha ikasi* liburu eta DVDa; *Uribe Kostako bertsolaritza (1900-1980)* liburua; *Baietz Sopela ezagutu?* Sopelako leku-izenak ezagutzeko jolasa; Gorliz eta Urdulizko toponimia liburua; Benito Otazua idazle urduliztarrak itzulitako *Andersen en ipuiñak*, eta, azkenik, *Uribe Kosta, Txorierrri eta Mungialdeko euskara* liburua.

3. Aurkezpenak Uribe Kostako ikastetxeetan

Lehiaketaren oinarriak eta materiala Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitatearekin adostu ostean, ikastetxeetan aurkezpenak egin behar ditu enpresa edo pertsona esleipendunak, gaztetxoei lehiaketaren berri emateko. Bertan, enpresak egitasmoaren nondik norakoak azaldu beharko dizkie bertako gaztetxoei; era erakargarrian betiere, haien inplikazioa lortzeko asmoz.

Aurkezpenak egin beharreko ikastetxeak honakoak dira: Zipiriñe, Iberre eta Ander Deuna (Sopelan); Elortza (Urdulizen); Gorlizko eskola; Lemoizko eskola; Plentziako eskola eta Uribe Kostako institutua (Plentzian); eta goian zehaztutako herri parte-hartzaileetako gazte bulego edo gazte topalekuetan ere komenigarria litzateke.

4. Zabalkundea

a) Enpresa edo pertsona esleipendunak prentsa-oharrak prestatu beharko ditu, Uribe Kostako



komunikabideetara eta gainontzeko komunikabide ezagunenetara bidaltzeko.

- b) Triptikoak eta kartelak diseinatu, inprimatu eta Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitatea osatzen duten udalerrietan eta ikastetxeetan jarri eta banatu behar ditu enpresa esleipendunak.
- c) Zabalkundea egiteko gazteentzako erakargarriak diren formatuak erabili beharko dira: sare sozialak eta web orriak.
- d) Izen-emateak kudeatu eta taldeak antolatu beharko ditu.

5. Web orria sortu (beharrezkoa balitz)

Enpresa edo pertsona esleipendunak egitasmoaren euskarri digitala sortu behar du: web orria. Bertara lehiaketan erabiliko den materiala lantzeko atazak igoko dira. Horrez gain, web orriak egitasmoari buruzko informazio orokorra, egitaraua eta izena emateko aukera jasoko ditu, bestek beste.

6. Probak eta atazak landu, eta azken hauek web orrira igo

Lehiaketaren oinarri izango den materiala lantzeko atazak sortu, eta bi edo hiru asterik behin atal berri bat igo beharko du web orrira enpresa esleipendunak, eta sare sozialen bidez zabaldu gaztetxoek jakin dezaten. Horrez gain, lehiaketarako probak ere diseinatu eta prestatu beharko ditu, finalurreko eta finalean praktikan jartzeko.

7. Harremana parte-hartzaileekin

Enpresa edo pertsona esleipendunak etengabeko harremana izan behar du gaztetxoekin; hala nola: materiala ondo deskarga daitekeen galdetzeko, motibatuzko, izena emateko, etab.

8. Finalurrekoa eta finala, eta hauek antolatzea

- a) Formatua diseinatu. Honetarako, enpresak honako material hauek izan beharko ditu gutxienez: 3 mahai, bi atril, lau mikro, argiztapen egokia, ordenagailutik proiektatzeko aukera, plasmak, pantaila...
- b) Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateko Euskara Zerbitzuarekin koordinatu beharko du: data, lekua, tokia, ordua... zehazteko.
- c) Ekitaldiak aurkeztu. Enpresa esleipendunaren esku geratzen da finalurreko eta finaleko aurkezlea eta ikusleak gainbegiratzeko begiralea(k) kontratatzea.
- d) Sariak banatu. Sariak enpresaren aurrekontuaren barne geratzen dira finalurreko eta finaleko

sariak. Parte-hartzaile guztiek izango dute sari xumeren bat; baina erakargarrienak lehen eta bigarren sailkatuek jaso beharko dituzte.

- e) E-maila komunikabideei jakinarazi eta sare sozialetan publikatu.
- f) Finalurrekoa eta finala egiteko Urdulizko Kultur Etxea eta Sopelako Kurtzio Kultur Etxea erabiliko dira, eserleku gehien duten Kultur Etxeak baitira.

3. ZERBITZUAREN HELBURUA:

Aurretik esan bezala, zerbitzuaren helburu nagusia honakoa da: Uribe Kostako zein inguruko hizkuntza ondarea, ahozkoa zein idatzizkoa, bertoko 10-14 urte bitarteko gaztetxoaren artean era ludiko eta entretenigarrian ezagutzera ematea 2016-2017 eta 2017-2018 ikasturteetan. Xede horrekin, lehiaketa bat antolatuko da eskualdeko gazteen artean.

Hala ere, helburu zehatz hauek ere aipa ditzakegu:

- Gaztetxoekin euskara modu arin eta gozagarrian lantzea.
- Euskararen ezagutza eta erabilera sustatzea.
- Euskal kultura, eskualdeko ahozko eta idatzizko ondarea, eta euskarak eskaintzen dituen baliabideak ezagutaraztea.
- Euskara landuz gozatzea.

4. GIZA BALIABIDEAK

Egitasmo osoaren ardura pertsona batek hartuko du; hala ere, egitasmoa aurrera eramateko langile-kopuru egokia zein izan daitekeen erabaki ahal izango du enpresa edo pertsona esleipendunak. Hala ere, eragileekin eta ikastetxeetan gaztetxoekin izango diren batzar eta aurkezpenetara bi pertsona joan beharko dute gutxienez. Horrez gain, honakoak hartu behar ditu kontuan enpresa edo pertsona esleipendunak behar izango dituen giza-baliabideak kalkulatzeko orduan: koordinatzailea, dinamizatzailea(k), begiralea(k) finalurreko eta finalean, aurkezlea, etab.

Lan-taldearen lan-hizkuntza euskara izango da, bai ekintzak koordinatu eta programatzeko orduan eta bai ikasleekiko harremanetan.



Lan-taldearen profila eta egitekoak ondorengoak izango dira:

Koordinatzailea

- Diplomaturua edo lizentziatua.
- EGA titulua edo baliokidea.
- Eskarmentua komunikazio-arloan, baita honen moduko beste lehiaketetan ere bai.

Koordinatzailearen eginkizunak:

- Egitasmoaren arduraduna izango da, eta berari egokituko zaizkio egin beharreko lan guztien eta egitasmoan parte hartuko duten langile guztien koordinazioa.
- Koordinazioa Euskara Zerbitzuarekin.
- Antolaketa, funtzionamendu eta jarraipen-lanak egingo ditu, dinamizatzailearekin batera.

Dinamizatzailea(k)

- Diplomaturua edo lizentziatua.
- EGA titulua edo baliokidea.
- Begirale titulua.
- Eskarmentua komunikazio-arloan, baita honen moduko beste lehiaketetan ere.
- Eskarmentua gaztetxoekin egindako lanetan.

Dinamizatzailearen zereginak ondorengoak izango dira:

- Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateak enpresa edo pertsona esleipendunari emango dion eskualdeko ikastetxe zerrendan oinarrituta, bertako arduradunekin harremanetan jarri eta 10-14 urte bitarteko ikasleei egitasmoa azaltzeko aurkezpen-datak lotu.
- Aurkezpen hauetan ikasleei egitasmoaren nondik norakoak azaldu.
- Aurkezpenak behin eginda, ikastetxeetako arduradunekin batzartu egitasmoaren jarraipena egiteko, balorazioak egiteko...
- Antolaketa, funtzionamendu eta jarraipen-lanak, koordinatzailearekin batera.
- Lehiaketaren oinarri izango diren atazak sortu, eta web orrira igo.

- Proba ludiko, entrenigarri eta ikasterrazak sortu, lehiaketan praktikan jartzeko.
- Gaztetxoekiko harremana etengabea izango da: materiala ondo deskarga daitekeen galdetzeko, motibatuzeko, etab.
- Izen-emateak kudeatu eta taldeak antolatu.
- Finalurrekoa eta finala antolatu eta koordinatu.
- Lehiaketa amaitzen denean, balorazio txostena egin.

Koordinatzaileak eta dinamizatzaileek kudeatu beharko dute bere denbora koordinazio-zereginak eta egitasmoak berekin dakartzan lanak aurrera eramateko. Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak ez du gutxieneko eta gehieneko ordurik finkatuko. Lan hau bere lanpostutik egin ahal izango dute koordinatzaile eta dinamizatzaileek, eta Uribe Kostako ikastetxeetara eta Euskara Zerbitzuaren bulegora etorri behar izango dute antolaketa eta koordinazio-batzarretan parte hartzeko bakarrik.

5. BALIABIDE MATERIALAK

Egitasmo honetan erabiliko den materiala eta tresneria guztia enpresa esleipendunaren kontu egongo da, pleguetan espresuki Mankomunitateak berak jarri behar duena izan ezik.

6. ZERBITZUAREN EBALUAZIOA

Ebaluazioari dagokionez, enpresa edo pertsona esleipendunak proiektu amaierako oroitidazkia aurkeztu beharko dio Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateari.

Mankomunitateak ikuskatu ahal izango ditu zerbitzuari lotutako ekintzak, beronen karguen bitartez edota teknikarien bidez. Horrez gain, egiaztatu ahal izango du enpresa edo pertsona esleipendunak betetzen dituela baldintza-agiri hauetan ezarritako baldintza tekniko guztiak.

7. BALORATUKO DIREN HOBEKUNTZAK

Baldintza administratiboen pleguetan jasotzen dira.

Nolanahi ere, hobekuntza bezala baloratuko da parte-hartzaile kopuruaren araberako proposamen-desberdinak egitea: finalurreko bat ala gehiago, horren araberako sari desberdinak, proba egokiak...

8. KONTRATUAREN-ZENBATEKOA

Baldintza administratibo partikularren pleguan zehazten da, eta kopuru hori beherantz hobetu ahal izango du enpresa eskatzaileak. Prezio horren barnean kontzeptu guztiak daude: Balio Erantsiaren gaineko Zerga, enpresa-etekina, gastu orokorrak, etab.

9. ZERBITZUAREN GARAPENA

Kontratuaren iraupena bi ikasturtekoa izango da: 2016-2017 ikasturtea eta 2017-2018 ikasturtea. Ikasturte bakoitzean enpresa esleipendunak 6 hilabeteko lan-jarduna izango du programa eta zerbitzua behar bezala garatzeko. Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateko ordezkariekin adostuko du programa eta zerbitzua zein hilabetetan hasi; eta horren arabera, enpresak fakturak hilero bidali beharko ditu.

Sopelan, 2016ko irailaren 30ean

Diligencia.- Para hacer constar que los presentes pliegos fueron aprobados por la Junta de Gobierno de la Mancomunidad en sesión celebrada con fecha 26 de octubre de 2016.

Doy fé. El Secretario